

INDARKERIAREN BIKTIMA DIREN EMAKUMEENTZAKO HARRERA ETXEA

Garrantzitsua

Adi: hemen Gizarte Zerbitzuei buruzko informazioa baino ez duzu aurkituko.

Hau da, beste baliabide batzuei buruzko informazioa bilatzen baduzu, hala nola Diru-sarrerak Bermatzeko Errentari (DSBE) buruzkoa, familientzako kontziliazio-laguntzei buruzkoa, adingabeak eskolatzeari buruzkoa edo osasun-zerbitzuetarako sarbideari buruzkoa, Hezkuntza, Familia eta Haurtzaroa, Osakidetza edo Lanbideren atarietara jo behar duzu informazioa jasotzeko.

Webgune honetan jasotzen diren prestazioez gain, udal bakoitzak eta aldundi bakoitzak beste zerbitzu eta prestazio batzuk izan ditzakete Gizarte Zerbitzuen arloan.

Genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak > Indarkeriaren biktima diren emakumeentzako harrera-zentroak eta pisuak

Fitxa osoa kontsultatzen ari zara. [Hemen informazio laburtua.](#)

Zertan datza zerbitzu hau?

Ostatua eskaintzen die matxista indarkeriaren biktima diren emakumeei eta harekin bizi ohi diren haren ardurapeko pertsoneri, adinekoak edo adingabeak izan, betiere babes-neurririk behar ez badute. Helburua da emakumeei suspertzen eta etxeko indarkeriak eragindako krisi-egoerak gainditzen laguntzea, eta haien segurtasun-sentimendua indartzea ([1.9.1 fitxa](#)). Aldi baterako errekurtsua da. Egonaldia, gehienez, 4 hilabetez luza daiteke, eta, salbuespenez, iraupen bereko luzapen bat egiteko aukera dago. Laguntza-intentsitate txikiko zerbitzua da, ez du pisuan etengabe diharduen langilerik, baina Udaleko Gizarte Zerbitzuaren laguntza du, matxista indarkeriaren biktimei arreta emateko zerbitzu eta programa guztiekin koordinatuta. Prestazio hauek sartzen dira: informazioa, balorazioa eta, hala badagokio, gizarte-laguntasuna, mediazio-bitartekaritza edo gizarte- eta hezkuntza-arloko edo arlo psikosozialeko esku-hartzea. Etxebizitzak etxebizitza-eraikin arrunt batean daude nagusiki, baina neurriak hartzen dituzte beren kokapenaren konfidentzialtasuna bermatzeko.

Nork jaso dezake zerbitzu hori?

Matxista indarkeriaren biktima diren emakumeak, indarkeria gainditzeko prozesuan daudenak eta babes-neurririk behar ez duten aldi baterako bizileku-aukera behar dutenak. Bere kargura dituen pertsonen ere erabil dezakete zerbitzua, adinekoak zein adingabeak izan.

Zenbat balio du zerbitzuak?

Doako zerbitzua.

Zein baldintza zehatz bete behar dira zerbitzua eskatzeko?

Gizarte-larrialdietarako preskripzio teknikoa baino ez da behar.

Nori dagokio zerbitzu hori ematea?

Zerbitzua ematea **Udalen ardura** da.

Non eska dezaket zerbitzua?

SATEVI-Indarkeria matxistaren biktima diren emakumeentzako informazio eta arreta zerbitzu espezializatua

Telefonoa: 900 840 111

- 24 orduz, asteko 7 egunetan.
- Ez du arrastorik uzten fakturan.
- Eskuragarria 51 hizkuntzatan.
- Entzumen- edo hizketa-desgaitasuna duten pertsonentzako zeinu-hizkuntzako interpretea.

[Web orrira sartu](#)

Informazio gehiago

Zure auzo, udalerrri edo eskualdeko **Oinarrizko Gizarte Zerbitzuetan** ere informazioa eska dezakezu. Esaiguzu zure udalerrria eta harremanetarako lekuak eta datuak adieraziko dizkizugu.

Zer arauk ezartzen du zerbitzu hori?

Zorroaren jatorrizko fitxarako sarbidea

[Fitxa laburrera itzuli](#)